Julio 2004ko Uztaila• N.º 5. Zb.

# areatza

lantzen

Areatza



Herriko Eskola: kalitatezko hezkuntza

(4. orr.)



Elkarrizketa: Joserra Garai, Dimako Alkatea

(6. orr.)

Udaltalde 21: movilidad sostenible

(pag. 7)

w w w . a r e a t z a . n e t

# Servicios — Zerbitzuak

## Telefonoak

| | |
|---|---|
| Udaletxea | 94-673.90.10 |
| Parketxea | 94-673.92.79 |
| Gorbeialde Elkartea | 94-631.55.25 |
| Arratiako Udalen Mankomunitatea | 94-673.60.88 |
| KZgunea | 94-673.97.45 |
| S.O.S Deiak | 112 |
| Osakidetza | 94-410.00.00 |
| Galdakaoko ospitalea | 94-400.70.00 |
| Botika | 94-673.93.22 |
| Autobusak | |
| Bizkaibus | 902-22.22.65 |
| La Unión | 94-427.11.11 |

## Botikak (guardiazkoak)

**12-18 julio/16-22 agosto**
**CORTAZAR ALDAPE, Mª INMACULADA**
**Lehendakari Aguirre, nº 27 IGORRE. Tlfno:94.673.61.09**

**19-25 julio/23-29 agosto**
**TRAVER NICOLAU, EDUARDO**
**J.A. Aguirreren Emparantza, s/n BEDIA. Tlfno:94.631.39.50**

**26 julio-1 agosto**
**ZAMALLOA ASUA, Mª ARANTZA**
**Askatasuna Kalea, nº 15 AREATZA. Tlfno:94.673.93.22**

**2–8 agosto**
**GOIKOETXEA BASTERRETXEA, PILAR**
**Ugarana, nº 33 DIMA. Tlfno:94.673.70.54**

**9-15 agosto**
**IBARROLA MERINO, ESTHER**
**Arregia s/n ZEANURI. Tlfno:94.673.93.95**

**30 agosto-3 septiembre**
**VARGAS CORTA, FCO. JAVIER**
**Barrio Arraibi, nº 11 LEMOA. Tlfno:94.631.30.18**

## *Autobus ordutegiak* • Horarios de autobús

**Bizkaibus**

### Zeanuri-Lemoa-Galdakaoko ospitalea-Bilbo

| | |
|---|---|
| Lanegunetan/Laborables: | |
| (lehenengoa/inicio) | 05,00etan |
| (ordu erdiro/cada media hora) | 05,15etatik 06,45etara |
| (orduro/cada hora) | 06,45etatik 21,45etara |
| Zapatuetan/Sábados: | |
| (lehenengoa/inicio) | 05,00etan |
| (orduro/cada hora) | 05,45etatik 21,45etara |
| Jaiegunetan/Festivos | |
| (orduro/cada hora) | 07,45etatik 21,45etara |

### Bilbo- Galdakaoko ospitalea- Zeanuri

| | |
|---|---|
| Egunero/Diario (orduro/cada hora) | 06,15etatik 21,15etara |

### Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

| | |
|---|---|
| *(Ubidetik irteerak/Salidas desde Ubide) | |
| Lanegunetan eta zapatuetan/Laborables y sábados | |
| (bi orduro/cada dos horas) | 06,50etatik 20,50etara |
| Jaiegunetan | |
| (bi orduro/cada dos horas) | 08,50etatik 20,50etara |
| *(Otxandiotik irteerak/Salidas desde Otxandio) | |
| Lanegunetan eta zapatuetan/Laborables y sábados | |
| (orduro/cada hora) | 07,00etatik 21,00etara |
| Jaiegunetan | |
| (bi orduro/cada dos horas) | 09,00etatik 21,00etara |

### Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

| | |
|---|---|
| Egunero/Diario | 06,45etatik 20,45etara |
| *Otxandiora/a Otxandio | (orduro/cada hora) |
| *Ubidera/a Ubide | (bi orduro/cada dos horas) |

### Zeanuri-Lemoa-Bilbo (autopistatik/por autopista)

| | |
|---|---|
| Lanegunetan/Laborables (orduro/cada hora) | 07,15etatik 21,15etara |
| Zapatu eta jaiegunetan/Sábados y festivos | (ez dabil/no circula) |

### Bilbo- Lemoa- Zeanuri (autopistatik/por autopista)

| | |
|---|---|
| Lanegunetan/Laborables | (orduro/cada hora) 06,45etatik 20,45etara |
| Zapatu eta jaiegunetan/Sábados y festivos | (ez dabil/no circula) |

# Editoriala

Gaur egun, Euskal Eskola Publikoak daukan zereginetarik garrantzitsuena gizarteratzea edo sozializazinoa da (ez integrazino lez aituta), hau da, eskoleak batu egiten dau ume bakotxak eskolan sartzean dakarren dibersidade indibidual eta soziala.

Areatza herri txikia da eta holango herrietan, eskoleak, herria bizteaz gainera, gurasoen arteko harremanak, edade desbardinetako ikasleen arteko harremanak eta maisu-maistren arteko harremanak bultzatzen ditu. Baina KONPROMISOAK be eskatzen ditu:

- Gurasoek eskolearen bizimoduan gehiago parte hartzea, heziketarako balio eta giro egokia definiduaz. Horren erakusgarri doguz eskolaz kanpoko jarduerak, urteerak, Eskola Kontseiluan igarotako orduak eta abar.
- Maisu-maistrek taldean lan egitea, ez bakarrik eskola barruan, ezpada beste eskola batzukaz koordinauta, eta, batez be, denboran iraungo dauan lan estiloa jorratzea, barriztuz joango dana eta lorratza itxiko dauana. Hor dagoz, besteak beste, aurten egin diran Herririk Herri jardunaldiak edo teknologia barrien arloko prestakuntza.
- Udalak eskolea beste erakunde batzuen aurrean babestea eta baliabide materialetan eta eskolearen funtzino hezitzailea osotzen daben zerbitzuetan inbertitzea. Hemen sartzen dira jantokia, materialak, teknologia barriak, eskolearen beraren ingurua jagotea, Eskola Kontseiluan ideia barriak emoten parte hartzea, 0-3 urteko etapea, euskerea normalizetako plana...



Oin dala urte batzuk, gurasoek gauzak holan izan behar dabezala esan eben eta, gitxi gorabehera 25 urtean, hartutako konpromiso horreek egia bihurtu dira. Gaur egun, gure seme-alabentzat denon artean lortu dogun eskolan, euskerea da komunikazinorako eta irakaskuntzarako hizkuntza giro samur eta hurrekoan, baina, horrezaz gainera, lantzen diran edukiak ikusita, eskoleak bat egiten dau bere inguruagaz, bultzatu egiten dau herriaren benetako nortasuna eta aberasgarria da heziketa-komunidadea osotzen daben pertsona guztientzat.

Una de las funciones más importantes que hoy en día cumple la Escuela Pública Vasca es la de la socialización, entendida como la inclusión -que no integración- de toda la diversidad individual y social que cada niñ@ aporta al entrar en la escuela.

En un pueblo pequeño como Areatza la escuela crea, además de vida social, relaciones afectivas entre padres/madres, alumn@s de diferentes edades y maestr@s. Pero también exige COMPROMISOS:

- A los padres/madres para participar más directamente en la vida de la escuela, definiendo unos valores y un ambiente en los que se desea educar. Prueba de ello son las actividades extraescolares, las salidas, las horas en reuniones del Consejo Escolar, etc.
- Al profesorado para trabajar en grupo y no solo dentro de la escuela sino coordinándose con otras y, sobre todo, con un estilo de trabajo que se mantenga en el tiempo. Ahí están la participación en las jornadas Herririk Herri, celebradas este año, o la preparación en nuevas tecnologías, entre otros.
- Al Ayuntamiento para apoyar la Escuela ante otras Instituciones, para invertir en recursos materiales y en servicios que complementen la función educadora de la escuela. Aquí entrarían el comedor, materiales, nuevas tecnologías, el mantenimiento del entorno de la propia escuela colaborando también con nuevas ideas en el Consejo Escolar, etapa 0-3 años, el plan para la normalización del euskera…

Hace años, por parte del colectivo de padres y madres, se expresó la voluntad de que ésto fuera así y en 25 años, aproximadamente, estos compromisos se han ido haciendo realidad. Al día de hoy podemos decir que para nuestros hij@s tenemos una escuela que, además de hacer que el euskera sea su lengua de comunicación y aprendizaje en un ambiente afectivo y cercano, también consigue, por sus contenidos de estudio, tener una relación con el entorno que posibilita la identificación como pueblo y el enriquecimiento cultural de tod@s las personas que integran la comunidad educativa.

www.areatza.net

**Herritarren buzoi irekia • Buzón abierto a los ciudadanos**
**areatzalantzen@hotmail.com**

**Argitaratzailea/Edita:**
Areatzako Udala
Gudarien plaza, 7• 48143 Areatza
tfnoa.: 94-673.90.10 faxa: 94-631.71.65
e-mail: areatzalantzen@hotmail.com

**Erredakzioa/Redacción:**
MBN Comunicación

**Egilea/Realización:**
MBN Comunicación

**Inprimategia/Impresión:**
Gráficas Arratia

**Ale kopurua/Tirada:**
600 ale/ejemplares




Txikitxuen gela

# Areatzako Eskola:
# edo kalitatezko heziketa

Uda hasi da eta umeak, jadanik, oporretan dagoz. Atsedenaldi hau aprobetxatuz, gure herriko eskolari "azterketa" bat egingo deutsagu.
Areatzako eskolaren historia orain dela 40 urte hasi zan eta Luis Carlos bertako zuzendariaren berbetan "ordutik hona hainbat aldaketa egon dira". Gaur egun 64 ikasle dagoz, urte 2 -12 urte bitartekoak, D ereduan ikasten dabenak, hau da, bere ikasketak euskeraz osatzen dabezanak. Nahiz eta Areatza herri txiki bat izan, Herriko Eskola honek eskola nagusi baten zerbitzuak eskeitzen dauz, beste abantaila batzurekin: herritar guztiok ezagutzen dira eta denek denen artean herriko umeak zaintzen dabez. Gainera, gelak masifikatuta ez dagozanez, hobeto irakatsi ahal da. Eskolan ez dira falta irakasleak, ez espezialistak, ez kontsultoreak. Bestalde, zuzendariaren ustez "nahiz eta adin bikoak gela berdinean egon behar, ume txikitxuentzako nagusiagokaz egotea oso positiboa da". Ez da ahaztu behar, Areatzan hainbat ekintza kultural egoten direla eta hoien bitartez umeak "aberastu" egiten dira.



*Amaia ume txikitxuen andereinoa da. Bere gelan haurrak jolastu eta ikasi egiten dabe.*

**Esta escuela ofrece todo lo necesario para una educación integral**

**La formación se completa con un entorno socio-cultural muy activo**

Teknologia berriek ere badaukate bere lekua eskolan. Informatika eta ikus-entzuteko teknologiak ezinbestekoak dira gaurko heziketan. Horretarako, informatika gela erabiltzen da eta bertan behar dan guztia topa daikee gazteak, ikasketak osatzen dabezan bitartean.

Aipatutakoaz gain, 2002tik Areatzako eskolan jantoki zerbitzua ere eskeintzen da, "Ageda"etxean kokatuta eta Udalak berreskuratutakoa. Bertan, umeak jateko zaindua eta orekatua bazkaltzen dabe eta txikitxuenak siesta ere egiten dabe.

Toki guztietan bezala, badagoz hobekuntzak behar dabezan gauzak ere. Adibidez, lehengo maisuen etxean psikomotrizidade gela

## La calidad reside en profesorado, alumnado, padres y pueblo

edo gimnasioa dago, euria dagoenean jolasak egiteko ere erabiltzen dena bazkaldu ondoren, eta ez dago egoera oso onean, "baina ez dagoenez besterik" dinosku Luis Carlosek. Bestalde, "patioarentzat kubierta bat ere oso ondo etorrriko gintzaiguke" azaltzen deusku zuzendariak. Baina ez dira kexatzen. Apurka-apurka badoaz gauzak konpontzen eta beharrizanak betetzen. Orain dela gitxi, Udaletxeak komun berriak ipini bai deutsiez.

Areatzako Udaletxearen eta eskolaren apostua argi dago: kalitatezko irakaskuntza eskeintzea, umeak mantentzea eta heziketa pertsonala eta fisikoa ematea. Beste eskola handietan bezala, hemen heziketarekin zerikusia daukan guztia zaintzen da eta gauza hoberenak umeentzat lortzen saiatzen dira. Azken finean, kalitatea irakasleek, umeek, gurasoek eta herriak ematen dauz, eta ez hiriburu batean kokatuta egoteak. Eskolako zuzendariak dinoskun legez "umeek herri berekoak direnez denen artean bat egiten dira eta elkartasun hori ere eskolatik kanpo nabaritzen da". Beraren ustez, Areatzakoa hiriburuetako eskolekaz konparatuz, lujo bat da hain ume gitxientzako



*Luis Carlos Areatzako herri eskolaren zuzendaria da.*

hainbeste irakasle eta medio egotea.

Orokorrean, euskal hezkuntzaren kalitatea oso ona da eta goi mailakoenetan dago. Nahiz eta sektore batzuk kolokan jarri gure irakaskuntza sistema, emaitzak hor dagoz. Ezin dogu ahaztu, gaurko umeak biharko agintariak izango direla eta etorkizuneko gizartea osatuko dabela. Hauek atzekoak baino askoz be hobeto prestatuta egongo dira ezagutza eta pertsonal mailan.

## Gaurko herriko eskola baten ekipamendua handietakoa bezala

Areatzako eskolak gure gazteen heziketak eta ongizateak behar dabezan tresna guztiak daukaz. Alde batetik, liburutegia ikasleen betebeharrentzat egokitua. Bestetik, informatika gela, gaur egun ezinbestekoa dan azken teknologia berrien mundua ezagutzeko. Eta azkenik, jantoki zerbitzua, umeen hazkuntza ere zaintzeko janari orekatu eta osoa eskeiniz.







**Joserra Garai, Dimako Alkatea:**

# "Norberaren herriaren alde lan egitea gauza onuragarria da"

**Jose Ramon Garai Dimako Alkatetzara azken Udal hauteskundeen bidez heldu zan, nahiez eta, aspalditik, zinegotzi bezala herriaren alde lanean egon. Diman ez dagoenean, Gazteizen, Eusko Jaurlaritzaren Kirol Zuzendaritza esku sendoz eramaten saiatzen da.**



*"Herriaren etorkizuna hobetzeko lan egin behar dogu Alkateok" dino Joserra Garaiek.*

**Nolako herria da Dima?**
Zabalera handiko herria da, hain zuzen 6180 Ha. Beraz, Bizkaiko handienetarikoa. Urkiolako Parke Naturaleko lurraren %25,14 Dimako udalerria da. Biztanleriari dagokionez, gaur egungo datuen arabera 1.128 erroldatu daude. Jaiotza tasa handia da eta ume kopurua urtero urtero asko igoten ari da.
Balore naturistiko handiak dekozan herria da eta bestalde prezio urbanistikoa ez da hain handia. Abeltzaintza eta nekazaritzak izan dauan indarra galdu egin da eta herriko jenteak uztartu egiten dau baserriko lana eta ogibide bezala daukan beharra. Lan hau gehienetan mugakide diren herrietan gauzatzen dabe. Esan behar da ere, herri euskalduna %95ko kopuruan dala.

**Zeintzuk dira zuen gaur egungo beharrizanak?**
Gu bezalako herrietan daudenak. Alde batetik, ur sarea barriztatzea eta uraren kalitatea hobetzea. Baita saneamenduegaz daukagun arazoa konpontzea. Bestetik, BI-2543 errepidearen eraginez dagozan trafiko arazoak, bide hori estua da eta oinezkoak espaloirik gabe dabiltza, horrek daukan arriskua azpimarratuz. Ezin doguz ahaztu aparkaleku arazoak ere, kirol instalazioak hobetu behar dirala eta lehen aipatutako umeen jaiotza tasa dala eta haurtzaindegia eta eskola instalazioak ere hobetu behar dirala, auzuneetako zerbitzuak: argi publikoa, bideen konponketa, seinalizazioa...

**Zure ustez zelako papera jokatzen dabe herri txikiek gaurko gizartean?**
Kontutan hartuta Dima herri euskalduna dala, gure ustez euskerak bizirik irauteak gu bezalako herri txikietan garrantzi handia dauko. Gure balore naturistikoak kontutan hartuta lurraldearen oreka mantentzeko herri txikiek daukien balioa ere inportantea da.

**Mankomunitatea osatzea baliogarria da?**
Gureak eta inguruko herri txikiek daukien populazio eskasa ikusita zerbitzuak era egokian kudeatzeko beharrezko entitatea da. Zentsu honetan, beharrezkoa da zerbitzuak hobeto bideratuteko eta hobeak izateko.
Bestalde, mankomunitateak bilatu beharko leuke ematen dauzan zerbitzuak era egoki baten burutzea eta ematen ez dituen batzuk ere ikertzea eta bideratzea.

## Nuestros pueblos han de conservar su riqueza cultural

**Zelako balorazioa egiten dozu Dimako Alkatetzara heldu zarenetik?**
Positiboa. Norberaren herriaren alde lan egitea, gauza emankorra eta interes handikoa da. Alkate bezala herriaren etorkizuna hobetzearen alde lan egitea beti positiboa da eta herritarrekaz daukazun hartuemona beti onuragarria izaten da.

**Zein da Areatzagaz dozuen harremana?**
Areatza herriagaz uste baino harreman handiagoa daukagu, nahiz eta mugakide ez izan. Hainbat dimoztarrek erabiltzen dabez Areatzako zerbitzu batzuk beraz, hartuemon zuzena dago.
Bestalde, Dima eta Areatza herriek hainbat erakundeetan parte hartzen dabe, buruz buru lan eginez, Arratiako Mankomunitatea, Gorbeialde, agenda 21, etabar…

# El plan de movilidad sostenible o el transporte responsable

**Aitor Uriguen, responsable de *Udaltalde 21 Arratia***

Próximamente, se pondrá en marcha el Plan de Movilidad Sostenible para todos los municipios integrantes del UDALTALDE 21 ARRATIA, para conocer la realidad a nivel comarcal y municipal de los aspectos relacionados con el tráfico, la movilidad y la accesibilidad y poder dar solución a los problemas que se detecten al respecto.

El transporte, la movilidad y la accesibilidad, son considerados en su conjunto como un sistema ambiental clave en las Agendas Locales 21, dada su importancia como problema a nivel global y a la posibilidad de actuación a nivel local. El tráfico y la movilidad motorizada son la causa de importantes impactos negativos, tanto para el medio ambiente como para la seguridad y la salud humana: aumento de la contaminación del aire, aumento de los niveles de ruido, consumo importante de combustibles fósiles no renovables, ocupación de amplias superficies de suelo urbano, tanto para el tránsito como para el estacionamiento, congestiones de tráfico, riesgo de accidentes y atropellos y dificulta la presencia de los grupos sociales más débiles como niños y ancianos en las calles.

Los desplazamientos que se realizan en la vida cotidiana (ir a la compra, al colegio o al trabajo) se desarrollan cada vez a más larga distancia. La compra en la gran superficie comercial, el colegio o ikastola alejada o el trabajo deslocalizado, obligan a recorrer cada vez distancias más largas que deben ser satisfechas a través de modos de transporte motorizados. Por todo ello, se pretende abordar esta problemática desde el punto de vista de la sostenibilidad a nivel comarcal y local.



**Movilidad: se puede entender como el deseo o necesidad de desplazamiento de personas o mercancías.**

**Accesibilidad: es la facilidad que tienen los ciudadanos para salvar las distancias que les separan de sus necesidades o deseos.**

## Trafikoa gure osasunerako eta segurtasunerako kaltegarria da

El principal objetivo del Plan de Movilidad Sostenible es favorecer un modelo de transporte y una movilidad más equilibrados y respetuosos con el entorno, recuperando el valor de nuestras calles como un espacio público y multifuncional donde el peatón sea el verdadero protagonista y donde se fomente el uso del transporte público y otras modalidades de movilidad que no requieran el uso del vehículo privado (en bici, a pie, etc.). También deberá favorecer la reducción del uso del coche en distancias cortas.

El Plan Municipal de Movilidad Sostenible deberá elaborarse y ponerse en marcha utilizando la misma metodología de la Agenda Local 21, es decir, elaborando un diagnóstico, definiendo los objetivos, eligiendo los indicadores y diseñando un Plan de Acción. Para todo ello, la participación de la población y de los grupos de interés es imprescindible.

La acciones para mejorar la movilidad tanto a nivel comarcal como municipal que surjan de este Plan, deberán aportar soluciones efectivas e integradoras. La construcción, por ejemplo, de un bidegorri o de una zona peatonal, deberá tener como objetivo principal el poder comunicar diferentes lugares del municipio o de la comarca, dándole más importancia como infraestructura alternativa de desplazamiento que como una zona para practicar el deporte o para pasear. Se empieza por itinerarios concretos y se completa con un sistema en forma de red que intercomunique los lugares más frecuentados por la población.

**BUZON VERDE AGENDA LOCAL 21**



Para recoger tus opiniones y tus ideas en estos temas, ponemos a tu disposición el Buzón Verde AL21. Envía todo lo que quieras aportar a la siguiente dirección:

Areatza Lantzen aldizkaria. • Areatzako Udala.
Gudarien plaza, 7. • 48143 Areatza.

**Itziar Atutxa, violoncellista:**

# "En Areatza hay una estimulación musical extraordinaria"

**Aunque nació en Bilbao, es arratiana por los cuatro costados. Vivió en Areatza, el pueblo de su madre, hasta los nueve años, pero con el paso del tiempo está redescubriendo la Villa y a sus antiguos amigos. Enamorada de la música, actualmente es profesora del Conservatorio Jesús Guridi de Vitoria-Gasteiz y del Juan Crisóstomo de Arriaga de Bilbao, y una reconocida intérprete de violoncello y viola da gamba.**



*"Los municipios pequeños tienen mucho que ofrecer hoy día" dice Itziar Atutxa.*

**¿Villaro o Areatza?**
El recuerdo que tengo desde siempre, y lo que a mí me sale, es Villaro. Pero, a día de hoy, me parece que Areatza está perfectamente asumido y reconocido. Los dos me parecen totalmente válidos. Lo importante no es el nombre sino el lugar.

**¿Cómo comienza su relación con la música?**
Siempre me ha gustado la música. Todos los primos íbamos a Artea a estudiar solfeo y algo de piano. Cuando llegué a Bilbao continué mis estudios en el Conservatorio, que compaginaba con el bachillerato. Un buen día me enteré que por las tardes había clases de violoncello y me apunté, sin saber muy bien de qué instrumento se trataba, pero con el sentimiento de que aquello era lo mío, de que me iba a gustar. Además, en aquella época, había muchas oportunidades para escuchar buenos conciertos y a grandes orquestas. Solíamos ir a la Filarmónica que nos daba invitaciones a los estudiantes del Conservatorio. Todo eso fue conformando una vocación, una pasión y, posteriormente, una profesión. Luego completé mi formación de cellista con estudios de viola da gamba, que es otro instrumento maravilloso, en Holanda.

**Frente a la formación musical, ¿los municipios pequeños están en desventaja?**
Evidentemente, quien desee hacer una carrera musical ha de acudir a un Conservatorio y eso implica desplazarse. Pero quien quiera satisfacer sus inquietudes musicales y tener unos buenos conocimientos de determinados instrumentos, perfectamente los puede hacer en cualquiera de nuestros municipios. Concretamente, en Areatza, se imparte una educación musical excelente, con buenísimos profesores, que ya la quisieran muchos otros lugares. En Areatza hay una estimulación musical extraordinaria.

> **Areatzatarrek lan asko egiten ari dira kultura musikalarengatik**

> **Herri txikiek, gaur egun, leku ezin hobeagoak dira bizitzeko**

**¿Por qué en Areatza hay una sensibilidad especial con la música?**
Creo que es algo que ha existido siempre. La Escuela de Música, la Banda…todos se sienten muy identificados e involucrados con ellos. Desde hace tiempo sus habitantes vienen trabajando a favor de la música, organizando conciertos, incentivando a los más pequeños, etc. Creo que ese amor a la música se cultiva cada día en Villaro.

**¿Cuál es su visión actual de la Villa?**
Antes la gente tenía más tendencia a irse a Bilbao o a municipios más grandes. Ahora hay mucha más gente que se quiere quedar en Villaro porque tiene más calidad de vida y no le importa desplazarse diariamente a su puesto de trabajo. Eso significa que se ha producido una mejora, en general, aunque aún queden cosas por solucionar. Lo que está claro es que en absoluto es un pueblo muerto, tiene mucho que ofrecer a todos los niveles y me consta que se trabaja cada día por mejorar el pueblo y dotar a sus habitantes de todo aquello que necesiten. Hoy dia los municipios pequeños pueden ser tan competitivos como los grandes núcleos.

# Areatzak bere irudi berriak aurkezten dauz

Gaur egungo gizartean, irudia eta diseinua elementu garrantzitsuak dira, gehien bat, herri baten "ikurrak" izango direnean. Horregaitik, Areatzako Udalak bere itxura aldatu nahi izan dau, logotipo aproposagoak , berriagoak, aukeratuz.

Diseinatzilea Bilboko enpresa bat izan da, G2C, eta bere asmoen artean berritasuna eta tradizioa elkartu nahi izan dabe. Hiru dira herriko logo edo identitake-korporatibo berriak:

Areatzako Udala
Ayuntamiento de Areatza

**Ohiko armarria:**
Gehienok ezagutzen dogun irudia da. Orain arte erabilitakoa, hemendik aurrera Udaletxearen dokumentu ofizialetan agertuko da soilik.

Areatza 1338

**Areatza 1338:**
Udal Elkarte Publikoarekin zerikusia daukan guztiak irudi hau eramango dau.

Areatza

**Aska Iturria:**
Herriaren sinboloa kanpo-irudia bihurtu da. Areatzaren "ikurra" izango da ekintza sozio-kultural guztietan erabiliz.

## Herri kirolen Bizkaiko finalak Areatzan

Gure Herri Kirola suspertzeko eta Ikastolen Elkarteak antolatutako "Xiba" programaren barruan, maiatzaren 29an Bizkaiko Herri Kirolen finalak ospatu ziren Areatzan. Berton, eta lehiaketaren barnean, hiru taldek parte hartu zuten: Igorre, Areatza eta Arratia taldeek alegia.

Finalean, egindako probak asko eta ezberdinak izan ziren: lasto altxatzea, toka, sokatira, ingudea, trontza, txingak, etxeko lanak, euskal dantzak…Eta berriz agerian geratu zan gure gazteen indarra eta kemena, zuzen eta garbiz jokatuz.

Bizkaiko final honetan, azkenean Arratiako gazteek irabazi zuten Areatzakoen aurrean. Hirugarren postuan Igorreko taldea geratu zan.

Bestalde, ekainaren 19an, Euskal Herriko finalak egin ziren Tolosan. Bertan, Zizurkileko taldea nagusitu zen Usurbil eta Idiazabalekoen aurrean. Areatzakoak hamabigarren postu xumean geratu ziren eta Arratiakoak apur bat atzeagoan.





*Irudietan, trontzalariak lanean, goian, eta euskal dantzak hasteko momentuan, behean.*

# Argazki lehiaketa

**Negu eta Udaberriko argazki sarituak hauek dira:**

## UDABERRIA/ PRIMAVERA

1


2


3


**1**.- "Zuria buruan eta oinetan be", Gotzon Idirin (Zeanuri).

**2**.- "San Simon eta San Juda...joan zan uda, eta negua heldu da", Amelia Urrutia (Artea).

**3**.- "Aita Sakramentinoen etxea", Lur Olabarri (Areatza).

## NEGUA / INVIERNO

1


2


3


**1**.- "Gorputzak elkarrekin nahasten diren moduan elkartu dira adar luzeak, sortutako barazkiari inguratuta orriak galduz bihar amuna datorrenean", Saioa Larrea (Areatza)

**2**.- "Cuando cae la nieve", José Ramón Gortazar (Areatza)

**3**.- "Edurra teilatuan", Leire Amuriza . (Areatza)

## CONCURSO FOTOGRÁFICO TRIMESTRAL: Las cuatro estaciones en Areatza

Ayúdanos a realizar el **Calendario Oficial de Areatza del 2005**. Envía tus fotos correspondientes a cada trimestre del 2004 mostrando las diferentes estaciones del año en Areatza y su entorno. Puedes participar en uno, dos, tres o en los cuatro trimestres, siempre que las fotografías reflejen la estación del año correspondiente.

**B A S E S :**

**1** Tema: "Areatza y su entorno en las cuatro estaciones del año".

**2** Dimensiones fotos: 30 x 45 cm. máximo y 18 x 24 cm. mínimo.

**3** Modalidad libre: color, blanco y negro o en los dos.

**4** Máximo de tres fotos por autor cada trimestre.

**5** Se presentarán bajo un solo lema, que deberá figurar al dorso de cada foto. Irán acompañadas de un sobre cerrado, en cuyo exterior figurará únicamente el lema elegido. Dentro del sobre se indicará en un papel el nombre, teléfono y dirección del autor



**6** Las fotografías se harán llegar a:

**AREATZA LANTZEN**
"Concurso Fotográfico Calendario"
Areatzako Udala
Gudarien Plaza, 7
48143 Areatza

**7** Premios cada trimestre:

Primero: 300 euros y material fotográfico.
Segundo: Fin de semana para dos personas en un Agroturismo de Euskadi, a elegir, y material fotográfico.
Tercero: Cena para dos personas en el Restaurante Axpe-Goikoa y material fotográfico.

**8** Con las fotos que obtengan Premio en los cuatro trimestres se realizará el Calendario Oficial de Areatza.

**9** Plazo de admisión de originales:

1er trimestre: **hasta el 3 de marzo de 2004**
2º trimestre: **hasta el 3 de junio de 2004**
3er trimestre: **hasta el 3 de septiembre de 2004**
4º trimestre: **hasta el 3 de diciembre de 2004**

**10** Con todas las fotografías recibidas se celebrará una exposición en el Ayuntamiento de Areatza.

**11** Las decisiones del Jurado, que estará formado por miembros del Ayuntamiento, por la revista "Areatza Lantzen" y por especialistas de la fotografía, serán inapelables.

**12** Todas las obras recibidas quedarán en propiedad de la revista municipal "Areatza Lantzen". Siempre que sean utilizadas se citará el nombre del autor.

# Laburrak • Breves

### Desprendimiento

El pasado 17 de Abril se produjo el desprendimiento de parte del inmueble situado en Goikokale, 14. Tras cerrar la calle, técnicos del Ayuntamiento y de la Diputación Foral de Bizkaia realizaron una inspección para valorar la si-



tuación. El estudio realizado constató que el estado del edificio es de “ruina inminente”, y por lo tanto es irrecuperable. Tras realizar los trámites necesarios, actualmente, se está a la espera del permiso de la Diputación para proceder a su derribo y garantizar así la seguridad de la vía pública y de los inmuebles colindantes.

### Izartu

El Ayuntamiento ha aprobado presentarse al programa IZARTU del Departamento de Vicepresidencia del Gobierno Vasco, destinado a la revitalización de zonas urbanas degradadas. Areatza ha presentado un total de 22 proyectos, que suponen una inversión total de 4,5 millones de euros. Dadas las características del municipio, se puede llegar a obtener el 75% de subvención. Las actuaciones presentadas contemplan acciones que contribuirán a mejorar la calidad de vida y el equipamiento de la Villa.

### Viviendas Karpo

El Ayuntamiento ha firmado un convenio de colaboración con el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco para la construcción de 45 viviendas de protección oficial (VPO) en Karpo, por el que el municipio entregará el suelo y el Gobierno vasco ejecutará el proyecto de urbanización y la construcción de viviendas, garajes y trasteros.
Este acuerdo, que se aprobó en el pleno municipal del 7 de Julio, contempla, asimismo, la posibilidad de construir algunas viviendas sociales para su arrendamiento protegido y mantener el resto en régimen de protección oficial.
Los destinatarios serán exclusivamente aquéllos que estén empadronados en Areatza, que no tengan vivienda en propiedad y cuyos ingresos no superen los límites establecidos por la legislación vigente. En el caso de que quedaran viviendas sin adjudicar, se ofertarían al resto de municipios de Arratia.
Para participar en dicha adjudicación, que se realizará por sorteo, habrá que estar inscrito en las listas del Servicio Vasco de Vivienda-Etxebide (www.etxebide.info)

### Normas subsidiarias

Recientemente, el Ayuntamiento ha remitido a la Diputación Foral de Bizkaia el Estudio de Impacto Ambiental de las nuevas Normas Subsidiarias que próximamente saldrán a información pública. Esta medida, que garantiza la calidad ambiental de las mismas, es una exigencia legal reciente, siendo Areatza el primero en llevarla a cabo.






## V. UDAKO MUSIKA JAIALDIA. AREATZA

### EGITARAUA / PROGRAMA:

**Uztailak 16 de julio. 20,00**
Gudarien Plaza
Orkesta / Orquesta
CONCERTINO

**Uztailak 24 de julio. 20,00**
Klarisen kapera / Capilla de las Clarisas
Música de Cámara
SYNAULIA TRIO

**Uztailak 30 de julio. 21,30**
Gudarien Plaza
Música Ligera
VOX POPULI

**Uztailak 31 de julio. 22,00**
Gudarien Plaza
Techno Music
DJ OLIVER



# Areatzako Udalak lehen Udal hauteskundeen XXV. urteurrena ospatu dau

**El Ayuntamiento de Areatza celebró el pasado mes de mayo el 25 Aniversario de las primeras elecciones municipales, celebradas en 1979. Al acto asistieron los concejales y alcaldes de Areatza que ejercieron su cargo durante esa etapa. Un emotivo encuentro que sirvió para recordar la trayectoria municipal de Areatza.**





*Argazki historikoa: 25 urteotan Udaletxean egondako zinegotzi eta alkateak. Beheko irudian,Areatzako alkateak: Pedro Basterra, Josu Basozabal eta Enrike Etxebarria.*

Joandako maiatzaren 29an, Areatzako Udalak lehen Udal Hauteskundeen XXV. Urteurrena ospatu zuen giro ezinhobeago batean.

Ekitaldira zinegotzi eta alkate ohiak hurbildu ziren, gaurko udal taldeak antolatutako omenaldi bat jasotzeko.Bertan elkartu ziren 30 lagun, gitxi gorabehera, 1979tik 2004ra Areatzako Udaletxean herriaren alde lan egin zutenak.

Eguerdiko 12etan, Udaletxeko atarian, Ohorezko Aurreskuagaz eta Alkate Soinuagaz ongi etorria eman zitzaien konbidatuei. Pleno Aretora igo ondoren, Josu Basozabal gaurko Areatzako Alkateak, harrera ofiziala eman zuen eta erakundea eta herriaren garrantzia azpimarratu zuen. Ondoren, Pedro Basterra eta Enrike Etxebarria alkate ohiek ere berba batzuk esan zioten bertan bildutakoei. Hitzaldien atzetik, zinegotzi eta alkate guztiei opari oroigarri bat eskeini zitzaien eta Udaletxeko ohorezko liburuan sinatu eben. Ohiko famili argazkia eta jan aurreko bategaz egun berezi bati amaiera eman zaion. Beste 25 urte barru Urrezko ezteak ospatzeko denok zain egongo gara.





*Ohore-aurreskua eta Alkate soinuagaz ongi etorria eman zan areatzako udaletxean bildutakoei. Goiko argazkian Ohorezko Liburuan sinatzen.*

**Los asistentes firmaron en el Libro de Honor del Ayuntamiento**

**Se destacó la importancia de los municipios en la sociedad actual**